



EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 30ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozedurako deialdian, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko, jardungo duten Epaimahaietako kideak izendatzeko zozketa iragartzen da (hautaketa-prozedura 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitu zen).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 29ko EHAA), dei egin zen enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozedura, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko.

Aipatutako Aginduaren 6.1 oinarriak ezartzen du hautaketa-organismoek egingo dutela prozesu honetako parte-hartzaileen hautaketa.

Izendapenari buruz, 6.2.1 oinarriak ezartzen du epaimahaikideek zozketa bidez hautatuko direla, eta dagokion lan-kategoriako langile lan-kontratudun finkoak edo dagokion lan-kategoriako kidego edo eskalako karrerako funtzionarioak izan beharko dutela.

Salbuespen gisa, eta justifikatutako arrazoiengatik, beste administrazio publiko batzuei eskatu ahal izango zaie enplegatuak izatea epaimahaietako kide izateko, edo beste kategoria bateko langile lan-kontratudunekin osatu ahal izango dira epaimahaioak.

Horregatik guztiarengatik,

EBATZI DUT

Artikulu bakarra.— Argitara ematea enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozeduran, Hezkuntza Saileko hezkuntzako lan-legepeko hezitzaileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko, jardungo duten Epaimahaietako kideak izendatzeko zozketa (hautaketa-prozedura 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez deitu zen). Zozketa egingo da:

Eguna: 2024ko otsailaren 8an.

Ordua: 10:00etan

Tokia: Lakua 2 eraikineko 5. aretoan (sarbidea Donostia kalea 1-etik da, Gasteizen).

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 30ean.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,
BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO.